



# Xenpelar Dokumentazio Jardunaldiak

## Tokiko Bilduma: herri bilketa eta ikus-entzunezko ondarea (1/2)

### Esperientziak

2017ko maiatzak 12

Xenpelar Dokumentazio Jardunaldiak dokumentazio alorraren inguruko eta, bereziki, Euskal Herriko dokumentazio gaien inguruko gogoetak bultzatu eta ezagutarazteko helburuarekin sortu ziren. Laugarren edizio hau herrietako ezagutza bildu eta geroratzeko egitasmoek sortzen duten ikus-entzunezko ondarearen inguruan antolatu da, zehazki bideo grabazioen eta euskarri digitalen inguruko esperientziak partekatzeko.

#### Hitz egindakoaren laburpena:

##### Herrietako ikus-entzunezko ondare bilketaren esperientziak

- **Hitzaldien ondorengo iritzi trukea**
- **Amarauna Lekukoak: auzoko bizilagunen bideo grabaketak liburutegiko tokiko bilduman**  
Larraitz Idarreta. Ernest Lluch Kultur Etxeko Liburutegia (Donostia)
- **Oiartzuarren baitan: herri hizkeraren bilketa bideo elkarrizketen bidez**  
Ane Lardi, Ttur Ttur Euskaltzaleon Bilgunea (Oiartzun) eta Idoia Etxeberria, Ahotsak.eus
- **Durango 1936: gerrako memoria kolektiboa eta omenaldia bideoen bidez**  
Unai Iturriaga eta Andoni Bareña. Durango 1936 Elkarte
- **Aldudarrak Batasuna: 1986ko lehen bideokameratik, herri telebistara**  
Ihintza Bidart. Aldudarrak Batasuna elkarte

Esperientzia bakoitzaren azalpenak jaso ondoren, bertaratuen artean trukatu ziren ideiak laburtu dira hemen. Testu honen bukaeran jaso dira esperientzia bakoitzari buruzko ideia nagusiak.

## *Hitzaldien ondorengo iritzi trukea*

### - **Baimenak:**

- Aukera bat, bideoan bertan, bukaeran, hiztunari galdetzea da, eta dokumentuan bertan baimena ematen dela grabatuta gelditzea. Hau Durango 1936 ekimenak egiten du.
- Idatzizko baimenak eskatzen dituzte udalek.
- Grabatuz edo idatziz, baina jaso baimena. Beharrezkoa da.
- Orain arte egindako grabazioak ez dira Interneten publikatzeko egin eta ez da sarritan baimenik eskatu. Gerora gertatu da, grabazio bilduma osatuta dagoenean, Internet egitasmoa aurrera eramatea. Hiztuna hilda dagoenean oso zaila da baimena lortzea, baimen hori eman ahal duen zein familiako kide den erabakitzea lege mailan.

### - **Hiztunarekin kontaktua:**

- Grabatuko den elkarrizketa baino lehen aurre-elkarrizketak egitea ez hain egokia. Grabatu behar den elkarrizketan gai berdinak errepikatzeko eskatu behar izaten zaio hiztunari: “baina hau jada kontatu dizut”.
- Gertutasuna lortzeko, aurretik egotea komeni da, proiektua zein den azaltzeko, zertarako erabiliko diren grabazioak, eta abar, baina grabatu nahi diren gaiei buruz hitz egin gabe.
- Elkarrizketatzailea herri berekoa bada, askoz hobeto, hiztunak aipatzen dituen pertsonak ere kokatu ahal izango baititu ziurrenik.

### - **Hiztunarekin grabazioan:**

- Arau orokor bezala, elkarrizketatzailea ahalik eta gutxien sartu behar da grabazioan. Hizkuntzari lotutako grabazioak egin behar direnean, utzi hiztuna bere kasa hitz egiten, lasai eta kamera dagoela ahaztea lortu arte.
- Helduei egindako elkarrizketetan sarritan elkarrizketatzailea sartu da grabazioan, argibideak emateko, kokatzeko, .... Editatzean mantendu egin dira (Durango 1936), beti ere hizlariak ematen dituen datuak kokatzeko balio dutenean, hobeto ulertzen lagundu dutenean.
- Memoria historikoko elkarrizketak oso zaindu behar, kudeatzeko ez dira hain errazak: beraien barneko gaiak dira askotan, inori lehenago kontatu gabekoak, eta gainera esan egiten dizue. “Gure aita fusilatu zuten eta inor ez da etorri gure etxera horretaz hitz egitera”. Hiztuna ondo zaindu behar da.

- **Webguneen kontsultak eta hedapena:**

- Durango 1936: Epe luzeko zerbitzua da, material hori eskuragarri izatea oso garrantzitsua da. Webgunean egun batean 100 bisitari izan dira gehien. Orokorrean, egunero 20 bisitari inguru izaten dira. Material didaktikoa egitea bultzatu nahi da. Baina urgentziarik ez, epe luzeko eskaintza izan behar da.
- Ahotsak: Gai oso zabalak jaso dira eta erabilpena badu, asko erabiltzen da eta gauza ezberdinetarako: historia ikerketarako; euskara irakasleak euskalki adibidea jartzeko,.. badakigu erabiltzen dela. Hezkuntza arauturako materiala ere sortu da, herri bakoitzeko eragileek eskatutako proiektuak dira. 2011an hasi ginen horrekin eta modu ezberdinak probatu dira. Jasotakoaren transmisioa egitea ez da erraza, saiakerak egiten ari gara.
- Aldudarrak Batasuna: Grabazio asko eta asko numerizatu gabe daude.
  - Bolondresak ari dira egiten lan hori. Eta Interneten ezin izango da dena jarri, baina gutxienez jasota zehatz zer dagoen erakutsi nahi da, behar den hori eskatu eta erabili ahal izateko.
  - Dirua behar da denetarako. Bolondres egitea ez da erraza, baina instituzioak ez dira asko lotzen lan honetan.

- **Liburutegi publikoek zein funtzio egitasmo hauekin:**

- Herri askotan liburutegiak ez du tokiko bilduma elkarrizketen bidez osatu behar izan, herriko elkarte batek egin izan duelako. Kasu askotan elkarteak egindako bilketa guztia liburutegian jaso da, webgune bidez ere garatu da, eta grabazio originalak kontsultarako eskaintzen dira liburutegian. Hedapen bezala, liburutegiko sare sozialak eta bloga erabiltzen da bilduma horren zabalkundea egiteko tarteka.
- Liburutegi batzuetan grabazio asko jasotzen dira hirugarrenen bidez, baina baimenik gabe, eta horrek ez du uzten Interneten publikatzen. Liburutegian kontsultagarri izatea ziurtatzen da, eta grabazio horiek eskuragarri daudela jakinaraztea.
- Herri liburutegiek ondare horren zabalkundea egitearekin lotuago daude, kontserbazioarekin baino, ez baitira liburutegi nazionala. Astero bilduma horren berri batekin hornitzen da webgunea. Lan hori ere aurreikusi behar da lanen antolaketan.

# Amarauna *Lekukoak: auzoko bizilagunen bideo grabaketak liburutegiko tokiko bilduman.*

Ernest Lluch Kultur Etxeko Liburutegia (Donostia)

[Ideien laburpena da hau]

- Amarauna egitasmoa sortzeko arrazoiak:
  1. IFLA erakundeak eta baita EAEko Euskal Ondarearen legeak, liburutegi publikoak tokian tokiko ondarea bildu, zaindu eta bultzatzeko helburua dutela adierazten dute.
  2. Auzoari buruzko ezezagutza handia dago eta ezagutarazteko nahia nagusitu da.
- Helburuak:
  1. Auzoari buruzko informazioa biltzea eta kudeatzea
  2. Auzoari buruzko informazio eta dokumentazio bilgune izatea eta liburutegia bera erreferente bilatzea
  3. Auzo identitatea indartzea
- Lan ildoak:
  1. *Amarauna bilduma*: Auzoari buruzko liburuak, argazkiak eta dokumentuak
  2. *Amarajira*: Auzoan zehar bisita gidatuak natura eta historia ezagutaraziz
  3. *Amarapedia*: Wikipedian auzoari buruzko informazioa gehitzen duen egitasmoa
  4. **Lekukoak**: Auzotarrei egindako elkarrizketak bideo grabazio bidez. Momentuz interneten ikusteko aukerarik ez dago. Liburutegian bertan DVD formatuan kontsulta eta maileguan.
- **Amarauna Lekukoak**
  - o Amara auzoari buruz jakiteko iturri nagusienetako bat auzotarrei egindako grabazioak zirela ikusi zen.
  - o 2010ean auzoari buruzko erakusketa egiteko helburuarekin, 20 lekuko bilatu ziren hasierako pausu hartan, ahalik eta talde anitzena osatuaz: hizkuntza, adina, lanbideak, lekuak, eta abar.
  - o Urtean bi grabazio berri egitea aurreikusten da. 2017an 3 lekuko berri grabatu dira.
  - o Nola egin:
    1. Lekukoak identifikatzea: gai jakin baten inguruan nor izan daitekeen identifikatu. Adinaren arabera lehentasunak ezarri.
    2. Aurre gidoia prestatu zen: 2010eko gidoia eta Ahotsak-eko gidak erabili ziren oinarri bezala.
    3. Aurre elkarrizketa bat egin zen pertsona bakoitzarekin, gaiak identifikatzeko
    4. Grabaketan zehaztapena.
      - a. Hiru aukera zeuden:
        - i. Norbait kontratatzea (2010ean bezala)
        - ii. Kultur etxeko kide batek egitea, Larrotxene kultur etxeko grabazio baliabideak erabilia.
        - iii. Donostia Kulturak esleipen bat badu hainbat grabazio egiteko → Azkenean aukera hau erabili da.
      - b. Egun berean grabaketa guztiak egiteko antolatu zen. Grabazioen edizioan liburutegiko argazkiak tartekatze eskaera egin zaie, gaiaren arabera. Orain, emaitzak jasotzeko momentuan gaude.
  - o Non gorde: Udaleko informatika zentroan gorde dira kopiak. DVD kopiak lekuko bakoitzari emateko eta liburutegian mailegatu ahal izateko.
  - o Hedapena: Liburutegiko sare sozialen bidez.

# Oiartzuarren baitan: herri hizkeraren bilketa bideo elkarrizketen bidez

Ttur Ttur Euskaltzaleon Bilgunea (Oiartzun) eta Ahotsak.eus

[Ideien laburpena da hau]

- Helburuak:

Oiartzungo hizkera eta ahozko ondarea biltzeko egitasmoa da. Oiartzungo hizkera biltzea eta, honekin batera, herriko memoria kolektiboa ere jasotzea. Biltzeaz gain, zabaltzea ere badu helburu.

- Atalak:

1. *Hiztegia*: Oiartzungo hizkeraren bereizgarri diren hitz eta esapideen hiztegia.
2. **Bideo-elkarrizketak**: Oiartzungo euskaldun zaharrei egindako elkarrizketa sorta.
3. *Toponimia*: Oiartzungo toponimia biltzen duen atala.
4. *Hika*: Oiartzunen hika nola aritzen garen erakusteko atala.
5. *Argazki zaharrak*: Hainbat lagunek bidalitako argazki zaharrekin osatutako bilduma.
6. *Mahai-jokoa*: Oiartzungo kontuei buruzko galdera lehiaketa
7. *Material didaktikoa, Ipuinak*: Oiartzuerara itzulitako ipuinak

- **Bideo-elkarrizketak**

- Ahotsak-eko plataforma erabili da grabazioak bildu, katalogatu eta Interneten publikatzeko. Bi webguneetan azaltzen dira grabatutakoak: [Oiartzuarren baitan webgunean](#) eta [Ahotsak webgunean](#).
- Elkarrizketak Ttur-Ttur Euskaltzaleon Bilguneak egiten ditu eta tratamendua ere bai.
- Elkarrizketak beste edozein lekutan aipatu eta erakusteko erraztasunak ematen ditu plataformak.
- Hiztegia ere garatuta dago webgunean: hitz bakoitza nola erabili azaltzen da, eta elkarrizketa baten erabilitako pasartea ere ikusten da. Horri argazkia edo beste elkarrizketak ere lotu daitezke.
- Non gorde:
  - Udal Artxiboan jaso dira grabazio original guztiak: 86 miniDV zinta analogikoak eta bere kaptura digitalak, kalitate gorenean. Udalarenak dira.
  - DVD kopiak ere atera dira, eta Udal Liburutegian jarri, maileguan emateko.
  - Kopiak Ttur-Ttur Euskaltzaleon Bilguneak ditu, bere lanketarako.
- Elkarrizketak egitean kontutan hartutako oharrak:
  - Elkarrizketa herritar batek eta oiartzueraz egitea, hiztunak bere hizkera ez aldatzeko.
  - Emakumeen lekukotzak zaintzea: Etnografian baserrira joan eta galderak egiteko, gizonarenagan joan edo emakumeak berak gizonak egingo duela esaten izan du gehienetan.
  - Isiltasuna errespetatu: aitona amonek isiltasuna elkarrizketa barruan sartzen dira. Ez moztu.

# *Durango 1936 Elkarteak: gerrako memoria kolektiboa eta omenaldia bideoen bidez*

Durango 1936 Elkarteak

[Ideien laburpena da hau]

- Helburuak:  
Durangaldean 1936ko gerran eta ondorengo diktaduran errepresioa sufritu zutenak omendu, beraien testigantzak bildu eta isildutako historia ezagutarazi nahi da. Herri historia egin nahi da, urte luzez debekatuta izan dutenei eta oraindik gaur egun ere debekatuta dutela sentitzen dutenei ahotsa emanez.
  
- Egitasmoaren ezaugarriak:
  - o 2007an elkarteak sortu eta 2008an lekukotzak biltzen hasi: grabazioekin batera, gaiari lotutako argazkiak eta dokumentuak ere bildu dira.
  - o Elkarrizketak egiteko gidoia Aranzadik elkarteak duena izan da.
  - o 2009an Durangoko udalarekin hitzarmena egin zen.
  - o Bolondresak egindako lana da. Herri bilketa handia egin da, denetariko dokumentuak bilduz. Grabazio mailan, sorreratik 2016ra, 81 grabaketa egin dira. 2017an beste 5 testigantza jaso dira eta beste 10 inguru jasotzeko asmoa dago. 130 pertsona ingururen testigantzak jaso dira. Erdiak euskaraz eta erdiak erdaraz.
  - o Egindako lanaren garrantzia: sarritan esan dute elkarrizketatuek *“Zuek zarete lehenak gu entzutera etorri direnak. Inor ez digu inoiz galdetu lehenago”*.
  
- Bildutakoa hedatu eta transmititu beharra:
  - o Webgune batean jartzea erabaki zen, liburu formatua baztertua, material gehiena ikus-entzunezkoa baitzen.
  - o Baimenak lortu beharra ekarri du: berriro joan behar izan da hizlari guztiengana, denei baimenak eskatzeko. Herenak hil dira eta haren ondorengoengana joan behar izan da, horrek duen zailtasunarekin.
  - o Webgunea egiteko profesionalen laguntza behar zela ikusi zen, bai teknologikoki bai informazioa antolatu eta bistaratzeko orduan ere. Horretarako Unai Iturragarengana jo zen.
  
- Webgunearen eraketarako lanak:
  - o Webgunean 80 elkarrizketa eskaintzen dira, gehienak ordu bat edo bi ordutakoak.
  - o Bi eredu erabili dira webgunea diseinatzerakoan:
    - Deportados.es webgunea (ikus-entzunezkoak, pertsonen fitxak, eta abar erakusten ditu). Grabaketa oso landuak dituzte. Durango 1936 webguneko bideoen edizioa ez dira hain landuak, baina edukia garrantzi handikoa da.
    - Ahotsak.eus webgunea. Bilketa eta atzetik dituen pasarteetan antolaketa hartu da eredu.

- Grabazioen prestaketa lanak:
    - Lan garrantzitsuena eginda zegoen: grabazioen bilduma. Hori nola erakutsi eta zabaldu asmatu behar zen, batez ere gazteengana heldu nahi izanez gero. Bideo laburretan zatitu behar zela ikusi zen.
    - Bideo guztiak ikusi, informazioa hustu eta denbora kodeak hartu ziren. Ondoren, grabazio guztien argazkia egitea lortu zen eta webgunerako behar zen edizioa erabakitzeko oinarria eta gidoia zehaztu ziren.
    - Dena bi hizkuntzetan erakutsi behar zen.
    - Elkarrizketa bakoitza nola antolatu tematikoki:
      - Elkarrizketatuak nor – zenbat bideo zati, zein gairi buruz hitz egin duen
      - Herriak zeintzuk eta zenbat pertsona bakoitzean
      - Nori buruz hitz egiten duten
    - 80 grabazio horietatik 911 bideo zati txiki sortu dira: gutxieneko edizioarekin sortu dira, garrantzi gehiena edukiari eman zaio, lekukotzari.
  - Nork: Codesyntax bidez, Ahotsak eginda zutelako.
- Konpondu behar izan diren gaiak:
    - Baimenak
    - Non kokatu interneten erabilera seguruago bat lortzeko: Google ez nahi berez, baina onartu egin da:
      - Informazioaren jabetzaren mamua du Googlek.
      - Baina bideoen kopurua eta teknologia berritzeko aukera handiak eskaintzen ditu.
  - 911 bideo igo eta bi hizkuntzatan jarri dira. Ezin zen lan hau banan banan egin:
    - Api baten bidez automatikoki igo dira kodifikazio batekin
    - Ondoren eskuz egin behar izan dira egokitzapenak, bideo bakoitzari fitxa osatzeko: pertsonaren izenak, izenburua eu/es; pasartearen ordena; hizkuntza; nork hitz egiten duen; inori egiten badio aipua; gaia zein den.
  - Biktimei buruzko informazioa sakontzeko aukera ematen du webguneak.
    - Elkarrizketetatik jasotako informazioaren bidez dokumentuak edo bestelako informazioa jasotzeko asmoa dago. Oso lan geldoa da. Jende batek asko eman ahal du, beste batzuk ezer ez dute: Sententziak, egunerokoak, heriotz agiriak, herrietako kausa generalak, argazkiak, ...
    - Biktima bakoitza omentzeko aukera eskaini nahi du webguneak: Familiako kideei beraiek testua prestatzeko aukera eman zaie, pertsona hori nola gogoratu nahi den erabakitzeko.
  - Eskaintzen diren edukiak zabaltzeko eta hedatzeko lanak:
    - Norbere webgunera bisitariak erakartzeko moduak egin behar dira. Hor ere lana dago.
    - Pertsonak eta gaiak eta herriak eta aipatutako biktimen izenak ondo markatuta uzteak informazioa zabaltzeko aukera gehiago ematen ditu.
    - Albiste bat publikatzen da astero, ondare hori berriz ere plazaratzeko, gai baten inguruan. Adibidez: ebakutatutako haurren gaia datorrenean, webgunean zer dagoen ikusi ondoren horri lotutakoak erakusten dira.

# ***Aldudarrak Batasuna: 1986ko lehen bideokameratik, Herri Telebistara***

Aldudarrak Batasuna elkarte

**[Ideien laburpena da hau]** Ikusi hitzaldiaren testu osoa [hemen](#).

- Aurrekariak:
  - o 80ko hamarkadan Euskal Irratiak sortzen dira.
  - o Mikel Erramouspe aldudarra Irulegiko Irratiaren sortzaileetariko bat da. 1987an kamara bat erosi eta famili eta Aldude ibarreko gertakariak biltzen ditu. Baigorriko kolegioan lan egitean, ondorengo urteetan zehar bideo formakuntza jasotzen du.
  - o 1989an Mikelek ikasleekin batera 40 minutuko dokumentala sortzen dute.
  - o 1990ean Euskal Herriko Laborarien Batasunak (ELB) bere urteko besta Alduden antolatu eta Mikelekin harremanetan jarrita, 40 minutu inguruko filma egin da mendi eskualdeko laborantza aurkezteko. Hainbat herritarrek hartu dute parte. Bideo dokumentalak egiteko eskariak ugartzen dira.
- Aldudarrak Batasuna elkartearen inguruan, Bideogile talde bat eratu eta lanean hasten da 90ko hamarkada hasieran:
  - o 1991ean suprefetak Aldude bisitatu eta ELBrako egindako bideoa ikusten du. Aldudarrak Batasuna elkartearen bideo proiektua babesteko prestutasuna azaldu eta diru-laguntza lortzen da.
  - o Mikel Erramouspek bideoak egiteko gai diren beste pertsona batzuk prestatzeko lanak hartu eta diru-laguntzen bidez ere 29 pertsona formatzen dira.
  - o Hainbat grabazio egiten hasi dira inguruetan, beti ere bolondres moduan.
  - o 90eko hamarkadan ere Baionako Cassin eskolako bideogintza sailak Aldude ibarreko telebista esperientziak egiten ditu urtero astebetetz. "Canaldudes" deitzen dute saioa eta VHS kasetetan banatzen dira herritarren artean.
  - o 1995ean *Télé Millevaches* herri telebistaren berri ezagutu eta Mikelek Limousin eskualdeko telebista bertatik bertara ezagutu du.
- Bideo lanen bat ordaindua izan den arren, beste guztia bolondres bezala egin da, diru-laguntzak ekipamendua eta formazioa egiteko erabilia. Eredu ekonomikoa falta da, gazteak egitasmo honetan soldatapeko lanean jarri ahal izateko.
- 1996an Aldudarrak Batasunak Lan Berri enpresaren bidez, proiektuka lan egiteko metodologia ikasi eta tokiko telebista sortzeko egitasmoa ere abiatzen da, *Télé Millevaches* telebistaren adibidean oinarrituz.
- 1997an [Aldudarrak Bideo Interes Kolektiboko Kooperatiba](#) elkarte sortzen da: Aldudarrak Batasunaren elkartearen ondoan, baina bideo saila bere kabuz aurrera eramateko. Kanaldude tokiko telebista sortzen da, euskaraz eta parte hartzailea:
  - o 1998an egin zen lehen emanaldia, Aldudeko feiraren karietara. Urte horretan ere ordaindutako lehen grabaketa lana egiten da. VHS kasetetan zabaltzen dira.
  - o 2000n lehen telebista hedapena egin zen.
  - o 2002an, Donibane Garazin, Irulegiko Irratiko egoitzara leku aldatzen da, telebista hedapen luzeagoa prestatzeko. Mailegu bat eskatu zen materiala erosteko, eta hedapen betean zelarrik, mailegua ukatu zela jakin zen. Egoera konpondu eta Kanaldude telebistako emanaldia sortu zen.
- Urtez urte bi aktibitate mota segitu dira :
  - o Eskaeretan oinarritutako bideoak
  - o [Kanaldude telebista partehartzailea](#)
- Gaur egun grabazio zahar guztiak gure egoitzan dira:
  - o Bolondres talde batek lantzen ditu, sailkatzen, izendatzen. Dena interneten jartzeko, lan handia eta dirua behar da.
  - o INA (Institut National des Archives)-en gordetzea ere helburu da.